

Año LVI. urtea

137 - 2024

Urtarrila-ekaina

Enero-junio



FONTES LINGVÆ VASCONVM STVDIA ET DOCUMENTA

SEPARATA

**Memoriaren arrastoa
euskal HGLn.**

Gerrak ez du izenik
albumaren azterketa

Amaia Serrano-Mariekurrena, Ursula Luna, Nerea Permach,
Berta Echeberria

Memoriaren arrastoa euskal HGLn. *Gerrak ez du izenik* albumaren azterketa

Vestigios de la memoria en la LIJ vasca. Análisis de *Gerrak ez du izenik*

Trace of memory in the Basque CYAL. Analysis of *Gerrak ez du izenik*

Amaia Serrano-Mariekurrena
Euskal Herriko Unibertsitatea, UPV/EHU
amaia.serrano@ehu.eus
<https://orcid.org/0000-0001-5336-6311>

Ursula Luna
Euskal Herriko Unibertsitatea, UPV/EHU
ursula.luna@ehu.eus
<https://orcid.org/0000-0003-1742-6035>

Nerea Permach
Euskal Herriko Unibertsitatea, UPV/EHU
nerea.permach@ehu.eus
<https://orcid.org/0000-0002-1238-457X>

Berta Echeberria
Euskal Herriko Unibertsitatea, UPV/EHU
berta.echeberria@ehu.eus
<https://orcid.org/0000-0002-0356-7833>

DOI: <https://doi.org/10.35462/flv137.6>

Ikerketa hau UPV/EHUren Hezkuntza Berrikuntza Proiektuen barnean kokatzen da; zehazki, «GATAI» proiektuaren baitan (IKDi³ 23-31), non gai gatazkatsuak eta album ilustratuen erabilera hezitzailea lantzen den (informazio gehiagorako jo hona: <https://www.gatai.eus/>).

Jasotze data: 2024/04/22. Behin-behineko onartze data: 2024/05/13. Behin betiko onartze data: 2024/06/05.

LABURPENA

Ikerlan honek hiru helburu ditu: 36ko Gerrari buruzko euskal Haur eta Gazte Literaturaren corpusa zehaztea, obra horiek gerraren zer irudikapen egin duten aztertzea, eta, azkenik, *Gerrak ez du izenik* (2013) albumaren interpretazio xehea egitea. Obren azterketarako narratologia genettearrari jarraitu diogu, eta albumaren irakurketarako genero-kode horri dagozkion bereizgarriak hartu dira kontuan. Emaitzek erakutsi dute 2010. urtetik aurrera gai honi buruzko HGLko lanak ugartu direla, eta ezaugarri hauek dituztela, besteak beste: haurren begirada nabarmentzen da, gerrak haurtzarorekin apurtzen du, istorio asko gerra-garaian bertan kokatuak dira, eta galtzaileen ikuspegia gailentzen da.

Gako hitzak: Euskal haur eta gazte literatura; 36ko Gerra; memoria historikoa; album ilustratuak.

RESUMEN

Este artículo tiene tres objetivos: determinar el corpus de la Literatura Infantil y Juvenil vasca sobre la Guerra Civil, analizar las representaciones de la guerra, y hacer una interpretación detallada del álbum *Gerrak ez du izenik* (2013). Para el análisis de las obras se seguirá la narratología genettiana y para la lectura del álbum se han tenido en cuenta las características propias del género. Los resultados muestran un incremento de obras de esta temática a partir de 2010, cuyas características son, entre otras, las siguientes: destaca la mirada de los niños, la guerra rompe con la infancia, muchas obras se sitúan en plena guerra y prevalece la perspectiva de los perdedores.

Palabras clave: Literatura infantil y juvenil vasca; Guerra Civil; memoria histórica; álbumes ilustrados.

ABSTRACT

This article has three objectives: to determine the corpus of Basque CYAL on the Spanish Civil War, to analyse the representations of the war, and to make an interpretation of *Gerrak ez du izenik* (2013). For the analysis of the works, we have followed the Genettian narratology, and for the interpretation of the picturebook, we have taken into account the specific characteristics of the genre. The results show an increase in the number of works on this theme from 2010 onwards, the characteristics of which are, among others, the following: the children's viewpoint stands out, the war breaks with childhood, many works are set in the middle of the war and the perspective of the losers prevails.

Keywords: Basque Children's and Young Adult Literature; Spanish Civil War; Historical Memory; picture books.

1. SARRERA. 2. CORPUSAREN DESKRIBAPENA. 3. EUSKAL HGL ETA 36KO GERRA. 4. *GERRAK EZ DU IZENIK*. 5. ONDORIOAK. 6. ERREFERENTZIAK.

1. SARRERA

Memoria komunikatiboaren bidez jasotako 36ko Gerrari buruzko oroitzapenak familian modu sinkroniko eta horizontalean jasotzea ez da naturalki gertatu Euskal Herrian eta Espainiako estatuan, eta horregatik hutsune hori betikotu ez zedin saiatu dira historialari eta erakunde batzuk. Josefina Campos, María Gonzalez Gorosarri, Mary Nash, Jimeno Jurio, Javier Rodrigo, Santiago de Pablo eta Iñaki Egaña historialariak edota *Euskal Memoria* eta *Ahotsak* fundazioak dira, adibidez, gerrako bizi-penak jaso eta irakurketa historikoak sortu dituztenak, batzuek genero-ikuspegitik egin ere.

36ko Gerra geroz eta urrunago ikusten duten belaunaldi berriak bertara gerturatzea zaila izaten da, besteak beste, errealitate horrekiko distantzia afektiboa dela medio. Aldiz, literaturak, gerraren irudikapen berriak eskaintzeaz gain, irakurleengan eragiteko estrategia eraginkorrak ditu, bestelako diskurtsoek lortzea nekezagoa duten baliabide bati esker: enpatiarako gaitasuna (Lauge, 2013). Literaturaren emozio-indarrak irakurle bakoitzarengan eragiteko ahalmen hori, gainera, biderkatu egiten da literatur lanak memoria kulturalaren parte garrantzitsu izatera igarotzen badira. Literatur sistemaren erdigunean dauden obra horiek, Erllen iritziz, sozializazio prozesu jakin bat pasatzen badute, kolektiboki adierazgarriak izatera hel daitezke:

There are two conditions for literary works to affect cultural memory: They must be received as media of memory; and they must be read in a broad swathe across society. Clues to such an 'effective presence' of literary texts in memory culture are provided by public debates as well as bestseller lists, forms of institutionalization such as their

being added to school or university curricula, and the use of literary quotes in everyday speech (2011, 155. or.).

Memoria Ikerketen arabera, obra literario batek memoria kulturean lekua egiten badu, gomuta-lekutzat har daiteke eta, Noraren (1984/1997) terminoaren bidetik, garai bateko gertaerekiko oroitzapenak eragin edo sor ditzake. Ildo horretan, 36ko Gerrari buruzko euskal Haur eta Gazte Literaturako –hemendik aurrera HGL– obra batzuek oihartzun handia izan dute, kritikan harrera zabala jaso dutelako edota sari ugari izan dituztelako, baina batez ere, Alonsok (2010) erakutsi bezala, eskolak literatur sistemaren erdigunean kokatzeko aukera ematen duenez, eskolako literatur kanonean kokatu direlako (irakasleen, eskolen edota argitaletxeen indarraren ondorioz sartu direlako ikastetxeetan). Halaxe gertatzen da, adibidez, Bernardo Atxagaren *Behi euskaldun baten memoriak* (1991) eleberriarekin, zeina klasikotzat jotzen den (Regueiro & García, 2020) eta akademian goraiatua izan den (Etxaniz & López, 2008; Olaziregi, 2008b) edota Miren Agur Meaberen *Urtebete itsasargian* (2003) obrarekin, zeinak Euskadi Saria jaso zuen, eta beste obra batzuekin gertatu ez bezala, lan akademikoetan sakonki aztertua izan den (López & Etxaniz, 2008; Regueiro & García, 2020).

Literaturak irakurlea hunkitzeko daukan gaitasunaz gain, badu identitate indibidualaz eta kolektiboaz zein bestelako errealitatez hausnarrarazteko ahalmena, zer esanik ez memoria demokratikoari dagokionez (Regueiro & García, 2020).

Espainiar haur eta gazte literaturari erreparatuz, gerrarena gai kanonikoa da, non berrogei izenburu baino gehiagoko corpusak jaso diren¹: «[...] probablemente por la vigencia que todavía tiene en la conformación de la sociedad de la España del siglo XXI» (Regueiro & García, 2020, 196. or.). Euskal HGLren egoera, ordea, oso bestelakoa izan da, gerrarena ez baita gai kanonikoa izan 2010era arte². Batetik, egoera sozio-politikoak ez zuen gaia gizarteratzea lortu, eta 90eko hamarkadan gerraren memoriari buruzko lehen diskurtsoak entzuten badira ere, bi joera gailendu ziren:

1 Aipatu behar da espainiar HGLren barruan kokatzen direla iberiar penintsuletako beste literaturetako obra batzuk (gaztelaniara itzuliak izan direnetatik ezagunenak), eta beraz, zerrenda hori handitu egiten dela. Aliaga eta Vázquez Sánchezek (2011) ematen dituzten izenburuetan espainiar HGLko zerrendako corpusak 54 liburu ditu.

2 Helduentzako euskal narratiban, 36ko Gerra gai kanonikoa izan da, bereziki 90eko hamarkadatik aurrera (Serrano-Mariezkurrena, 2024), eta aldiz, HGLn 2010etik aurrera hartu du protagonismoa. López eta Etxanizek iradokitzen duten bezala, segur aski Memoria Historikoaren legeari (52/2007 Legea, abenduaren 26koa, gerra zibilean eta diktaduran jazarpena edo indarkeria pairatu zutenen eskubideak onartzen eta zabaltzen dituena, eta haien aldeko neurriak ezartzen dituena) buruzko eztabaidak sustatu zuen interes hori: «Irudipena dugu gerra zibilaren gaiak, helduentzako literaturan hainbestetan eta hainbeste ikuspegitatik jorratua izan ondoren, gazte literaturan aurkitu duela bizirauteko aterpe, akaso hain eztabaidatua izan den “oroimen historikoarekin” zerikusia duen itxura didaktikoago batekin» (2008, 314. or.). Espainiar HGLn, aldiz, 80ko hamarkadan hasi ziren gerrari buruzko lanak argitaratzen, eta Nieves Martínek dioenez, bestelako gai gatazkatsuak azaleratzeak lagundu zuen horretan: «En la década de los ochenta, la entrada de nuevos temas que incluyen la marginación, la violencia o nuevos modelos sociales facilita el camino para hablar de ese momento histórico y su repercusión en los más jóvenes» (2008, 49. or.). Galiziar HGLn, berriz, 90eko hamarkadan hasten dira gerrari buruzko diskurtso literarioak (Neira Rodríguez, 2011).

errebisionismoa eta herri mugimenduen apropiazio politikoa (Serrano-Mariezkurrena, 2019). Bestetik, HGLn kontrol pedagogiko eta morala aipatzen da gai gatazkatsu hau literaturaren bidez lantzea eragotzi izanaren argudiotzat (Olaziregi, 2008a). Gerrako istorioak krudelegiak edo gogorregiak direlakoan, haur eta gazteei errealtate gordina erakustea saihestu behar delako korronteari erantzuten dio ideia horrek, nahiz eta haurrek gatazka sozialen eta belikoen inguruko informazioa komunikabide eta sareen bitartez jasotzen duten (Ferreira-Boo, 2016, 2019). Ildo horretan, idazleen auto-zentsurarako joera ere aipatzen duenik bada: «[...] porque la sociedad española tenía muchas necesidades a las que atender y porque la autocensura aún funcionaba dado que el miedo a remover heridas frenó a los escritores a la hora de representarla» (Roig et al., 2012, 69. or.). Azkenik, euskal HGLk karlistadei eta batez ere euskal gatazkari arreta jarri izanak bestelako garai historikoetara jotzea ekidin duela aipatu da: «Horien guztien alboan, berriz, oso gutxi dira 1936ko Gerra ukitzen duten euskal haur eta gazte literatura lana» (Etxaniz & López, 2008, 139. or.).

Gerrari buruzko HGL aztertzeke joera eskasa izan da akademian orokorrean, eta gutxi dira lan literarioen interpretazioak egin izan dituztenak (Regueiro & García, 2020). Euskal akademian ere urriak dira mota horretako lanak³, eta horiek bereziki Memoria Historikoaren Legea onartu eta berehala argitaratutakoak dira (Etxaniz & López, 2008; López & Etxaniz, 2008; Olaziregi, 2008a, 2008b). Gainera, bereziki bi eleberriri buruzko interpretazioak egiten dira lan horietan: *Behi euskaldun baten memoriak* eta *Urtebete itsasargian*. Hori dela eta, ikerlan honen helburuak honakoak dira: lehenengoa, 36ko Gerrari buruzko liburuen corpusa osatzea eta deskribatzea; bigarrena, corpus horretako memoria diskurtsoak azaltzea; eta hirugarrena, Leire Bilbaoren eta Maite Mutuberriaren *Gerrak ez du izenik* (2013) albumaren interpretazio sakona egitea.

2. CORPUSAREN DESKRIBAPENA

Euskal HGL 36ko Gerrari begira jarri zen 80ko hamarkadan. Une horretan liburu bakarra argitaratu zen, nahiz eta iberiar literatura periferikoetako beste HGLetan gertatu bezala, 90eko hamarkadan biderkatu egin zen kopurua, eta lau liburuk ikusi zuten argia. Horretan guztian bi faktorek eragin zutela esan genezake: hainbat arrazoi sozio-kulturali esker 1980-1994 bitartean euskal HGL sendotu izanak (Etxaniz, 1997) eta, agente kultural eta politikoek gaiarekiko interesa agertzearen ondorioz, eztabaida gizartera zabaldu izanak⁴ (Serrano-Mariezkurrena, 2019). Hurrengo hamarkadan,

3 Adierazgarria da Regueirok eta García (2020) iberiar penintsulako HGLen inguruan aritzean, katalana eta galiziarra laburbiltzea, baina euskarazko HGLri buruz ezer ez esatea (Olaziregiren erreferentzia bat aipatzen badute ere).

4 Esate baterako, 90eko hamarkadan eskaintzen dio euskarazko irrati-telebistak (EiTB) 36ko Gerrari tartea, bere ibilbide laburrean lehen aldiz (de Pablo, 2012). Haatik, 1936ko Gerrari buruzko memoriaren berreskurapenaren unerik gorena XXI. mendearen hasieran heldu zen. Istorio pribatu batek komunikabideetan izan zuen oihartzunaren ondorioz, eztabaida publiko bihurtu zen: Emilio Silva kazetariak bere aitona errepublikazalearen hilotza aurkitu zuen eta ordutik aurrera egoera berean zeudenen eskaerak biderkatu egin ziren. Gertaera hori jaso izan dute adituek memoriaren eztabaidaren abiapuntu (Barruso, 2004; Errazkin, 2009; Moreno-Nuño, 2006; Ruiz Torres, 2007).

aldiz, jaitsiera nabarmen bat dago, eta bi lanek soilik dihardute gerraz, biak ere euskal HGLn liburu irakurrienen artean dauden arren. Azkenik, 2010-2020 bitartean zazpi liburuk jotzen dute garai historiko horretara. Guztira, hamabost obrek osatzen dute gaur egunera arte dugun gerrari buruzko HGLren corpusa⁵:

1. taula: 36ko Gerrari buruzko euskal HGL

80ko hamarkada	90eko hamarkada	2000-2010	2010-2020
Pottoko (Añorga & Mitxelena, 1984)	Itzulera baten historia (Ugalde, 1990) Behi euskaldun baten memoriak (Atxaga, 1991) Metxa esaten zioten agirretar baten ibili berrenak (Izagirre, 1991) 1948ko uda (Zubizarreta & Olariaga, 1994)	Urtebete itsasargian (Meabe, 2003) Kolosala izango da (Sarrionandia, 2003)	Udaberririk ankerrena (Iturriaga & San Vicente, 2011) Memoriaren zubaitza (Añorga & Mitxelena, 2012) Gerrak ez du izenik (Bilbao & Mutuberria, 2013) Beroki gorria (Zubizarreta & Mosquera, 2016) Gezurren basoa (Ladron, 2016) Hari single bat (Garzes & Urbeltz, 2019) Arrastoa (Igerabide, 2020) Amonarenean kea (Ibañez & Martirena, 2020)

Literatur generoari dagokionez, espainiar literaturako fenomeno bera gertatzen da (Negrete-Portillo, 2024), euskal HGLk bereziki narratibaren bidez kontatu baitu gerra (hamar eleberrri eta ipuin liburu bat), baina album ilustratuen bidez ere eraiki dira garai historiko horri buruzko kontakizunak: *Gerrak ez du izenik* (2013), *Beroki gorria* (2016) eta *Amonarenean kea* (2020). Horrez gain, Durangoko bombardaketari buruzko *Udaberririk ankerrena* (2011) komikiak ere gerrako zenbait errealitate azaleratzen ditu, karlisten eta abertzaleen arteko gatazkak; erlijioaren auzia euskaltzaleen artean; emakumearen kontrako indarkeria sexuala, erbesteratutako haurrak, etab.

Aipatutako corpuseko liburuetatik bostek sariak jaso dituzte: *1948ko udak* Bapora Saria (1993), *Urtebete itsasargian* eleberrriak haur eta gazteentzako literaturako Euskadi Saria (2007), *Gerrak ez du izenik* Etxepare Saria (2013), *Beroki gorria* XI. Peru Abarka album lehiaketako irabazlea izan zen (2016) eta *Hari single batek* Lizardi Saria (2018) jaso zuen. Beste batzuk hainbat hizkuntzetara itzuliak, HGLko historiari buruzko liburuetan aipatuak edota eskolako literatur kanonekoak dira; besteak beste,

5 Corpusetik kanpo utzi ditugu gerrei buruz orokorrean hitz egiten duten liburuak: *Joxeme gerrara daramate* (Mendiguren, 1992) eleberrria eta *Gerra* (Letria & Letria, 2022) albuma. Lehenengoan jarrera antimilitarista eta bakezalea nabarmentzen dira, baina ez dira espazio eta denbora markak adierazten. Gainera, kontakizuna errealista izanagatik, kutsu fantastikoa dauka, eta ikuspegia oso didaktikoa da (argiki adierazten da komunikabideen diskurtso ideologikoez ez fidatzeko mezua, herritarrak gerrara indarrez behartzea, etab.). Bigarren obran, gerraren kontrako alegatu bat egiten da, oso modu poetiko eta sinbolikoan, non gerrak ekartzen dituen ondorioak azaleratzen diren (beldurra, botere gosea, zapalkuntza, etab.). Edozein kasutan, Ainhoa Urzelai-Vicentek laster argitartuko duen doktore-tesian kontsultatu ahalko da 36ko Gerrari buruzko euskal HGLko corpus zabalagoa, genero literario ezberdinak biltzen dituen (Urzelai-Vicente, 2024).

Behi euskaldun baten memoriak, *Metxa esaten zioten agirretar baten ibili herrenak* eta *Kolosala izango da*. Beraz, Erlek (2011) azaltzen duen liburuen sozializazio ibilbidetan, haur eta gazteengan eragiteko eta haien imajinario kolektiboetara iristeko aukera handiak dituzte.

Aipagarria da, halaber, obra hauek errealismo kritikoaren barruan kokatzen direla, gai gatazkatsuekiko ikuspegi gogoetsua sustatzen duten liburuak baitira, irakurlearen nortasuna eta autonomia bultzatzen dutenak (Etxaniz, 2011). Horietako batzuk HGLren historietan hala sailkatuak izan dira, gainera (Etxaniz, 1997, 201. or.; Etxaniz & López, 2008): *Behi euskaldun baten memoriak*, 1948ko uda edota *Urtebete itsasargian*.

Azkenik, idazleen generoari begira, hamazazpi liburutatik lau obratan ditugu emakume sortzaileak: Miren Agur Meabe, Leire Bilbao idazlea eta Maite Mutuberria ilustratzailea, Idoia Garzes idazlea eta Leire Urbeltz marrazkilaria, eta Ana Ibañez idazlea. Helduen euskal literaturan emakumezko gutxik idatzi dute gerrari buruz, eta Eider Rodriguezek eten zuen joera hori *Eta handik gutxira gaur* (2004) ipuin-bildumako izen bereko narrazioarekin. Ondoren heldu zen Miren Agur Meabe, *Urtebete itsasargian* (2006) eleberriarekin. Zazpi urte beranduago argitaratu zuten Leire Bilbao eta Maite Mutuberriak artikulu honetan interpretatuko dugun *Gerrak ez du izenik* (2013) albuma. Ez da kasualitatea emakumezko sortzaileek gerraz egindako proposamen literarioetan pertsonaia femeninoen arteko genealogiak aurkitzea, emakumezko pertsonaia historikoak irudikatzea edota askotariko sexu-identitateak topatzea.

3. EUSKAL HGL ETA 36KO GERRA

Mota honetako lanak aztertzerako garaian, ikergaiaren helburuen arabera, analisi metodo ezberdinak proposatu dira. Lópezek eta Etxanizek (2008) esaterako, euskal HGLren bi obra aztertzean, historiaren eta fikzioaren arteko lotura batzuk azaltzen dituzte. Ildo horretan, narrazioaren ideologia ere aztertzen dute, gerra zer begiradatik kontatzen den adieraziz –kolektibo zehatzen presentzia–, eta hor txertatzen dute, adibidez, ikuspegi feminista⁶; ahots narratiboa eta pertsonaien jokabideak ere hartzen dituzte kontuan, bereziki irakurlearekin enpatizatzeo aukera eskaintzen duten adierazteko. Azkenik, kontaketa-estiloak gaiari egiten dion ekarpena aipatzen dute.

Gräfnék (2011) 1975-2010 bitarteko espainiar HGLko obrak aztertzean, narrazio-denboraren irizpidea darabil, eta istorioaren kontaketa unearen arabera, pertsonaiek zer ikuspegi azaleratzen duten eta garai historiko horrekiko zer harreman duten deskribatzen du: nola eraikitzen duten pertsonaiek garai horrekiko diskurtsoa –adibidez, iraganarekiko adiskidetzerik sustatzen den, memoria erresistentetik eta bakezalerik defendatzen den, memoria pertsonalak gailentzen zaizkion memoria kolektiboek–,

⁶ Aldiz, ikerketa gehienetan gerrari buruzko ikuspegia edo narrazioa feminista ez denean, ez da ideologiaren barruan aipamenik egiten. Kontakizunak ezaugarri misogino, matxista, estereotipatu, androgino edo patriarkalak dituenen, bederen, ez da ideologia horri buruzko aipamenik egiten.

pertsonaien ideologia eta harreman-sarea zein den, datu historiografikorik esplizitazten den, etab. Horrela, lau taldetan banatzen ditu obrak: (1) gerra garaian kokatzen direnak; (2) gerraostekoak; (3) une garaikidean kokatutakoak eta (4) gaur egungo garaitik gerra kontatzen duten istorioetako ekarpenak biltzen dituenen –azken hau hirugarren multzoko azpi-atal gisa har liteke, gure ustez–.

Roigek et al.-ek koordinaturiko liburuan (2012) 1936tik 2008ra bitarteko gerrari buruzko lanak aztertzen dituzte, hiru kapitulutan banaturik: lehenengoan, 1936-1940 bitartean argitaratutako narrazioak hartzen dituzte aztergai; ondoren, 1960-1975 bitartekoak eta, azkenik, Francoren heriotzatik 2008ra bitartekoak. Atal bakoitzaren sarreran, garaiko egoera sozio-historiko eta kulturalaz dihardute, liburuen argitaratze unea kokatzeko, eta ondoren lan bakoitzaren laburpena eta iruzkin laburrak egiten dituzte hainbat egilek. Euskal literaturari dagokionez, *Behi euskaldun baten memoriak* eta *1948ko uda* eleberriak interpretatzen dira, labur.

Regueirok eta Garcíak (2020) 2000-2020 urte bitarteko espainiar HGLko obra adierazgarrienak aztertzen dituzte, bi ikerketa asmoren arabera: ea gerraren gaia nazionalismoak aldarrikatzeko –eta, haien hitzetan, haur eta gazteak balio nazionalistetan hez-teko– baliabide bilakatu diren eta ea jarrera bakezale eta antimilitaristarik erakusten duten. Horretarako, narrazioetako ideologia zantzuak azpimarratzen dituzte, aldagai hauei erreparatuz: pertsonaia nagusiaren eta narratzailearen pentsamendua eta jokabidea, datu historikoen trataera, gerrari buruzko kontaketen egitura –pertsonaiaren bizipen gisa ala memoria jarauntsi moduan, plano narratiboak–, etab.

Negrete-Portillok (2024) XXI. mendeko HGLko lanak aztertzen ditu, bi aldagairen arabera: egitura tekniko-narratiboa –kronotopoa– eta pertsonaiak gerrarekiko daukan harremana –bizipen propioak dituen ala memoria transmisioaren ondorioz jaso duen–. Horrek baldintzatzen du gerrari buruzko diskurtsoa, eta pertsonaia gerrako esperientziatik zenbat eta urrunago kokatu, orduan eta ikuspegi lausoagoa eskaintzen dela adierazten du. Alegia, azken bi hamarkadatarako obra horietan pertsonaiak ez direla ideologikoki bandoetan kokatzen, dikotomietatik ihes egiteko joera bat dagoela, eta horrela *egoera gogor hura bizitzea egokitu* zaien pertsonaiatzat hartzen direnez, testuinguru historikoa galdu egiten dela, elkarbizitzaren alde: «[...] resulta interesante observar de qué manera la tendencia de las novelas en su conjunto es mitigar, subtextualmente, culpas y responsabilidades o, dicho de otro modo, los textos estudiados propenden a la armonía a partir de la selección misma de los vocablos» (Negrete-Portillo, 2024, 211. or.).

Horrez gain, badira gaira genero ikuspegitik gerturatu diren ikerketak ere. Blockeelek (2010) bi aldagai hartzen ditu: pertsonaien protagonismoa generoaren arabera –baita narratzailearena ere– eta gerrarekiko pertsonaia horiek zer posizio duten. Azterketa horretan bereziki pertsonaia femeninoek hartutako jarrerari erreparatzen die –emakumezko milizianoak, maistrak eta emakume «arruntak» aipatzen ditu–, pertsonaia maskulinoen aldean, askoz gutxiagotan irudikatzen direlako eta presente egiten direnean ere oso gutxitan dutelako ahots narratiboa. Neira-Rodriguezek (2011), aldiz, azterketa kuantitatiboa egiten du, HGL espainiar eta galiziarrean 2010 arte gerrari buruz idatzi duten emakumeen eta haien obren berri emanez.

Aurrekari teoriko-metodologiko horiek kontuan harturik, 36ko Gerrari buruzko euskal HGLk eraikitako diskurtsoei erreparatzeko alderdi hauek izango ditugu aztergai: narratzailearen eta protagonistaren adina eta generoa, kronotopoak –narrazio denbora gerra-garaian kokatzen den ala memoria transmisiorik dagoen ikusteko–, kontaktzen diren gertaera nagusiak –zein imajinario transmititzen den identifikatzeko– eta horiekiko ikuspegi ideologikoak. Horretarako, liburu bakoitzaren iruzkinak kronologikoki egin beharrean, joera nagusiak azpimarratuko ditugu, aldaketak erakutsi dituzten lanetako ezaugarriak berariaz markatuaz.

Orokorrean esan dezakegu obra askotan ageri direla narratzaile-protagonista gisa haurrak, irakurlearen gertutasuna lortzeko HGLn ohikoa den bezala. Horietan bi bide nabarmentzen dira: identitate eraikuntzarako joera duten lanak –*Bildungsroman* gisa sailka genitzakeenak– eta egoera lazgarriaren ondorioz, haurtzaroaren esperientzia errotik apurtu zaien umeen bizipenak jasotzen dituztenak. Lehen multzoan sartuko lirateke Ugaldereen *Itzulera baten historia* (1990), non erbestetik bueltan, haurrak haren identitatearekiko kezka azaleratzen dituen, edota *Behi euskaldun baten memoriak* (1991), zeina nobela inizatitkotzat jo izan duten (Etxaniz & López, 2008; Olaziregi, 2008). Bigarren multzoan kokatzen dira, oster, *Urtebete itsasargian* (2003), *Kolosala izango da* (2003), *Udaberririk ankerrena* (2011) eta *Beroki gorria* (2016), besteak beste. Saillkapen horren atzean egitura narratiboa dago: pertsonaiak kontaktzen duen unea garaikideagoa bada eta gerra amaituta badago, haren ibilbide existentzialari buruz hitz egiten du; eta, aldiz, fikzio-denborak eta narrazio-denborak bat egiten duten kasuetan, gerrako esperientziak baldintzatzen ditu pertsonaiak, eta beraz, kontakizuna errealitatearen eta gatazkaren arteko talkaren erakusgarri da.

Hala ere, haurrak ez dira beti narratzaile. *Pottoko* (1984) obra da gerrari buruz hitz egiten duen lehen euskal narrazioa, eta bertan narratzaile orojakilea dugu, nahiz eta haurraren fokalizatzen duen, eta haren bizipenak kontaktzen dituen batik bat. Gauza bera gertatzen da *Hari single bat* eta *1948ko uda* eleberrietan, non haurraren fokalizatzen den. Bigarrenean, gainera, bi narratzaile daude: egunerokoan ageri den narratzaile intradiegetikoa eta autodiegetikoa, gerra eta gerraostea bizi izan zituen Beñaten aitaren ahots narratiboa; eta 90eko hamarkadatik gertu kokatzen den narratzaile extradiegetiko heterodiegetikoa, Beñatengan fokalizatzen duena. Bi lan horietan denbora-plano ezberdinak daude, eta hori baliatzen da iragana orainaldira ekarri eta memoriaren beharra aldarrikatzeko. *Gerrak ez du izenik* (2013) albumean ere haurraren fokalizatzen den narratzaile orojakileak du kontaktaren ardura. Bestalde, *Behi euskaldun baten memoriak* (1991) lanean animalia bat da kontalari, haur literaturan maiz gertatzen den bezala, kontaktarekiko distantzia bat gordetzearren. *Arrastoa* (2020) eleberrian ere ez da haurra narratzailea, Errepublika garaiko detektibe heldu bat baizik, baina kontaktaren zatirik nagusia Justino izeneko gazte baten bizitzan oinarritzen da, eta modu horretan irakurle gazteekiko lotura bilatzen da. Alderantziz ere gertatzen da, hau da, narratzailea haurra den kasu batzuetan gerrako gertaerak ez dira haren ahotsetik jasotzen, bereziki garaikidea den denbora-plano batean kokatzen bada umea. Esate baterako, *Memoriaren zuhaitza* (2012) eleberrian aitona da gerrako kontuez aritzen zaiona.

Ikusten denez, haurren ikuspegia, dela ahots narratiboa ematen zaiolako, dela haren gan fokalizatzen delako, presente dago beti. Horregatik, gehienetan ikuspegia xaloa da, baina ez inuzentea, hau da, helduen begiradatik haurrak gertatzen ari direnaz jabetzen ez direla uste arren, ez da hala, baina era berean, gerraren arrazoiak ez dituzte ulertzen, eta horrek egiten du gehienetan istorioa gordin. Horrez gain, kontaketa ikuspegia berdin jasotzen da mutil zein neska pertsonaien bizipenetatik. Alabaina, bada datu interesgarri bat ibilbide honetan, izan ere, irudipena dugu Martin Ugaldere *Itzulera baten historiak* edota Bernardo Atxagaren *Behi euskaldun baten memoriak* eleberriek eragingo zutela hurrengo sorkuntza-obretan, eta neska gazte baten edota behi baten ahotsak markatu zuela neurri batean hurrengo kontaketa genero-ikuspegia. Horrez gain, nabarmentzekoa da bereziki komikian eta bi album ilustratuetan ematen zaiela protagonismoa neskei, horietako gehienetan kontaketa ardura ere haiengan jarriaz –*Gerrak ez du izenik* albumean ez da hori gertatzen, baina istorioan ageri diren pertsonaia guztiak emakumezkoak dira, hurrengo atalean ikusiko dugunez–.

Kronotopoari dagokionez, istorio gehienak, modu esplizituan zein implizituan, Euskal Herrian 36ko Gerrako garaian kokatzen dira. Alegia, denboraren irudikapenari dagokionez, gehienetan kronologikoa eta lineala da, analepsirik gabea, eta 30eko hamarkadan kokatua. Kontaketa forma horrek historiografiarekiko antzekotasuna erakusten du, eta, Liikanenek (2012) adierazten duen legez, mundu hori erabateko eta koherente bezala aurkezten da. Are gehiago, denbora espazio itxi eta mugatu gisa irudikatzeak bertara sarbidea izateko ezintasuna adierazten du (Cadenas, 2014). Denbora horren baitan, batzuetan espazioa ezaguna da –Durango, Bilbo, Iruñea– eta beste batzuetan, fikziozkoa –Kalaportu, Garraitzeta–. Hala ere, guztiak euskal herri eta hiri gisa deskribatzen dira. Denbora markak, bestelako HGLrekin konparatuz, esplizitatu egiten dira, batzuetan datu objektiboen bidez. *Kolosala izango dan*, esaterako, halaxe dio haurrak: «Nik lapitzaz hormako egutegian zirkulu batekin inguratzen nuen aita itsasora joaten zen eguna, eta koadratu batekin itzultzen zenekoa, eta akorduan dut uztailaren hemeretzia markatu nuela zirkulu barruan 1936ko kalendarioan» (16. or.), eta beste batzuetan paratestuetan ematen dira datu horiek –*Udaberririk ankerrena* edo *Amonarenean kea* obretan bezala–. Datu implizituen bidez ere ondoriozta daiteke garaia, kontaketa zehar aipatzen diren janzkera, ohitura edota gertaeretatik –bonbardaketak agertuz gero, 1937ko urtean koka dezake historia ezagutzen duen irakurleak, esaterako–.

Gertakarien aipamenari dagokionez, obra gehienetan datu historikoak ematen dira, eta batzuetan haurrak garaiaren kontzientzia baduela nabarmentzen da, helduen ustearen kontra: «Uste zuten ez nekiela zer pasatzen zen, hauteskundeak Frente Popularrak irabazi zituela, Errepublika proklamatu zela eta harrezkero dena aldatuko zela» (*Kolosala izango da*, 7.-8. or.). *Gerrak ez du izenik* albumean ere hala gertatzen da⁷: «Ez du gertatzen ari dena ikusi nahi», erantzun dio neskatoaren buruan pausatu den esku heldu batek. Baina Mirentxuk gertatzen denetik haratago ikusten du, 1937ko

7 Normalean album orrialdeak ez dira zenbakitzen, eta beraz, albumei dagozkien aipuetan ez dugu zenbakerik jarri.

martxoan». Batzuetan, ziurgabetasunez bada ere, haur eta gazte protagonistek adierazten dute ezagutza badutela: «Itsasontzian geunden gehienok norbaitekin geunden han eta norbait genuen Santurtziko portuan [...]. Agirre lehendakaria esaten zioten gizon serioa ere han ikusten genuen, beroki beltzarekin, bakarrik edo Elizabethekin [...]. Baina gu ez gindoazen bidaian Kuba, Mexiko edo New Yorkera. Gu Ingalaterrara bidaltzen gintuzten. Gerratik ihesi» (*Beroki gorria*). Azken batean, gizartearen oihartzunetatik, komunikabideetatik, karteletatik jasotzen dute informazioa haurrek, eta garaiko bizipen horiek haien gorputzak zeharkatzen dituzte. Gehien errepikatzen diren gertaerak bonbardaketak dira –Durangokoa batez ere, herritar zibilen kontrako lehen eraso izan zelako agian, edota Gernikako bonbardaketarekiko konparazioan, hain ezaguna ez delako–: *Pottoko*, *Udaberririk ankerrena* eta *Gerrak ez du izenik* obretan, adibidez, horiek dira gertakari nagusi; nahiz eta beste lanetan ere aipatzen diren –*Urtebete itsasargianen* adibidez–. Erbesteratutako haurren gaia ere maiz agertzen da, dela bidaia abiatzen dutelako –*Udaberririk ankerrena*, *Beroki gorria*, *Gerrak ez du izenik*–, dela erbestetik bueltan direlako –*Itzulera baten historia*–. Beste batzuetan herriko gertaerak dira aipagai –*Kolosala izango da*, *Urtebete itsasargian*, *Memoriaren zuhaitza*, *Arrastoa*–. Horietako batzuetan Errepublikara garaiko errealtatea tentsio handiko gisa irudikatzen da, gertaerak hain justu estatu kolpearen aurretiko une zehatzean kokatzen direlako. Beste batzuetan, ordea, gerra piztu aurretiko herritarren arteko liskarrak azaltzen dira, gatazkak mendekurako aukera ematen duelarik. Ildo horretan, helduen euskal literaturan ez bezala, euskal HGLn behin baino gehiagotan azpimarratzen da frankisten bandoan ibilitako erreketek edota karlistek errepublikazaleen higiezinak ebasteke probestu zutela gerra –*Itzulera batean historia*, *Memoriaren zuhaitza* eta *Arrastoa* lanetan, adibidez–. Horrez gain, 36ko Gerran gertatutako emakumeen kontrako jazarpen sistematikoa (Joly, 2008) ageri da bi obratan: *Hari single bat* eta *Udaberririk ankerrena*. Lehenengoan etengabea da aurreko belaunaldikoek bizirauteko behar izan zuten isiltasunaren eta oraingo belaunaldikoekin jakin-minaren arteko talka. Memoriaren transmisiorik eza protagonistaren galderekin hasten da, eta amak alabari kontatzen dion lehen gertakaria birramonari egindako jazarpen sexualarena da:

Isilik gelditu zen, korapilo askaezin harekin bere baitan. Alabaren begietan bereak ikusi zituen, ordea, haren begiradan berea: eskea ere bazen galdera.

– Ilea arras moztu zioten eta kalean ibilarazi zuten beste emakume batzuekin batera. Arrakoren amak luze hartu zuen arnasa jarraitu aurretik.

– Errizino-olioa edatera derrigortu zituzten, eta denen aurrean paseatu, denen aurrean lotsagarri uzteko, gainean egiten baitzuten kaka eta pixa, larriari ezin eutsiz (*Hari single bat*, 78.-79. or.).

Bigarren lanean, komikian, amaieran aurkitzen da emakumeen kontrako eraso, hain zuzen ere Ana pertsonaiari bizirauteko heldulekuak agortu zaizkionean: ama bonbardaketa batean hil zaio, aita gudarostera joanez geroztik ez du haren berririk, eta bikotekidea beste gudari batzuekin batera kamioi batean hilik daramatela ikusten du. Gerra hasieran, Anaren gurasoek mehatxatuta zegoen maila sozial edo ekonomiko altuko gizon bat (Don Fernando) ezkutatu zuten etxean. Anak gurasoei ohartarazten die faxista bat gordetzen ari direla, baina horrek ez du ukatzen familiak, gizalegez,

babestu nahi izatea. Amaieran, baina, herria karlistek hartua dutenean, Don Fernandok Ana salatzen du, eta hor bukatzen da haren bizitza, emakume errepublikazale gorriei egindako bortizkeriarekin: ilea soiltzen diote, kaka eginarazteko errizino olio edanarazi eta plazan paseatzen dute zigor eredugarri. Sexu-bortxaketa ere jasan behar izan duela iradokitzen da aurreko pasarteetan, eta horrek guztiak bere buruaz beste egi-tera darama:



1. irudia. Iturralde, U. & Sanvi, A. (2011). *Udaberririk ankerrena*. Durangoko 1936 Kultur Elkarte-Elkar.

Horrez gain, batzuetan euskal kulturgintzako sortzaileen kontrako erailketak eta jazarpena ere aipatzen dira, bereziki *Urtebete itsasargian* eleberrian:

- Don Pedro, eguerdi on, errekadu bat ematera gatoz. Gure adiskide batek, entzutea ere izango du berorrek, idazle eta kazetaria da-eta...
- Estepan... Zelan du berak ezizena...? Inoiz ikusi dut Garraitzetan.
- Estepanek jakinarazi digu bere lagun min bat fusilatu dutela Hernaniko kanposantuan, abadea, euskaltzale jakintsua.

Don Pedrok burura eraman zituen eskuak:

- Ariztimuño hil dute orduan. Elkarrekin ibili ginen seminarioan... (69. or.).

Gerraren ikuspegiari dagokionez, lan gehienetan errepublikazaleen posiziotik kontatzen dira gertakizunak, baina ez dago manikeismo nabarmenik. Haur edo gazteengan zentratzen diren istorioak dira, eta gerrak herritarrei ekarritako bizipenak eta ondorioak erakusten dira. Lan batzuetan gerraren testuingurua oso zehaztua dago: «Hala hasi zen gerra egun haietan. Afrikako ejertzittoa gobernuaren kontra errebelatu zela

entzuten zen Philips irratiairen parteetan» (*Kolosala izango da*, 17. or.), «1936ko uda zen, Errepublikaren garaia. Otsailean, Herri Fronteak –ezkerreko alderdiak batzen zituen bilkurak– irabazi zituen Espainiako hauteskundeak» (*Urtebete itsasargian*⁸, 20. or.), «1937ko udaberria hasi berria zen. Izan denik eta udaberririk ankerrena» (*Udaberririk ankerrena*, 7. or.); «Garai hartan, gizartea nahasirik zebilen, zirimola han, zirimola hemen; lehen mundu gerraren eta sobietar iraultzaren ondotik, Espainia eta Euskal Herrian gizarte gorabehera handiak gertatzen ari ziren» (*Arrastoa*, 33. or.). Kontakizun horietan gerrari buruzko ideologia ezberdinen oihartzuna dago, ez beti maila berean, baina badira rol garrantzitsua duten frankistak, bi taldeen arteko aldea nabarmentzeko –*Kolosala izango dako* protagonistaren aita Altxamendukoekin batzen da; *Hari single bateko* protagonistaren aitaren aldekoak ere frankistak dira–, bando batekoekin edo bestearekin posizionatu nahi ez dutenak –Justino edota narratzailea, kasu, *Arrastoa*–, etab. Era berean, aipatzen dira talde anarkistak –*Udaberririk ankerrena*–, sozialistak –*Kolosala izango da*–, miliziar emakumeak edota Emakume Abertzale Batzako kideak –*Urtebete itsasargian*–.

Beste batzuetan, aldiz, gerra guztiz deskontestualizatuta dago, eta bat-batean ezerezetik sortu den gertaera bat bailitzan agertzen da *Pottoko* (1984) ipuinean. Haurraren xalotasunaren erakusgarri izan badaiteke ere, istorioaren norabidea apurtzen duen gertakaria da gerra:

BRROOUUMmm! Pottokok ikaragarritzko saltoa jotzen du ohean eta galdezka hasten da.

– Zer izan da hori, terremotoa? –galdetzen du Pottokok–. Lurrikara?

Aitak triste begiratzen dio eta tristeago erantzuten dio:

– BONBARDEO BAT izan da, Pottoko.

– Zer? –galdetzen du Pottokok (33.-34. or.).

Azkenik, memoria transmisioa dagoen kontakizunetan, gertaera historiko batzuen bidez iradokitzen da garaia, baina ez da horretan sakontzen. Obra horiek pertsonaien mundu afektiboan oinarritzen direnez, historia kontatzeko hurbilagoko kontamoldea eta memoria horren biziraupenaren beharra aldarrikatzen dira: *1948ko udan*, adibidez, historiografia tradizionalaren eta eguneroko bateko diskurtsoaren arteko aldea nabarmentzen du narratzaileak, ezen Gizarte ikasgaiako azterketa baten bezperan aitaren memorieta arakutzen ari baita⁹ –«Beñat erabat harrapaturik sentitzen zen aitaren istorioen sareetan. Ikasten egon behar zuen Luis XIV.a baino nahiago zuen gerraosteko

8 Obra honi egotzi izan zaio gerraren ikuspegi nazionalista nabarmena izatea (López & Etxaniz, 2008, 317. or.; Regueiro & García, 2020, 202. or.), baina irudipen horren atzean, gure ustez, badira zenbait arrazoi: fikzioa sortzeko Iñaki Egañaren *36ko Gerra haurrei kontatua* (2004) liburua baliatu zuen egileak eta, gainera, Emakume Abertzale Batzaren berri ematen du, EAJren talde femeninoa (ezen ez Lópezek eta Etxanizek (2008) dioten bezala, talde feminista). Horrez gain, euskal kulturgintzaren loraldiak (Euskal Pizkundeak) jasandako etena ere adierazten denez, zenbait adituk mundu nazionalista hertsu baten deskribapena egiten duela leporatzen diote Meaberi.

9 Jakina, protagonistak aitaren egunerokoan kontaktzen direnekin gehiago enpatizatze arrazoia ez da kontamoldea bakarrik, aitarekiko erlazio afektiboa eta hurbilagoko historia izateak ere eragiten duela iruditzen zaigu.

historia, edo hobeki esan, historia kontatzeko, historia ikasteko molde hura» (39. or.)–. Ikuspegi berbera azaltzen da *Hari single bat* eleberrian, bere familiarekiko lotura emozionalengatik, 36ko Gerra gertukoago sentitzen hasten baita protagonista gaztea:

1936ko gerra jorratua zuten eskolan. Liburuan zetorrena. Datak. Datuak. Zenbakiak azken finean. Gordinak batzuk. Baina hutsak. Kontu zaharrak. Iragana. Historia, hitz batean.

Baina historia hori bere familiarena ere bazela jakitean, iragana presente bihurtu zen Arrakoren begien aurrean, une hartantxe uki zezakeen errealtate gisa. Bere historia ere bazelako (88. or.).

Une horretatik aurrera, Arrakok iraganeko gertaera lazgarri horiek orainera ekarztearen premiaz dihardu, memoriaren hariari jarraitzeaz –sinbolo gisa darabil haria eleberrian zehar–. Kontaketaren beharra aldarrikatzen da *Memoriaren zuhaitza* eleberrian ere, hainbat modutara. Batetik, aitona barneko minak askatzeko beharra agerian utziz: «Nik galdetu diot ea zer gertatzen zaion; baina aitona erantzunik ez. Badirudi itzali egin zaiola memoria, begiak bezala, bat-batean. Halere, begiak itzaliak izanagatik, irekiak daramatza, eta kontatzen jarraitu du, bizar luzeari helduta» (26. or.). Bestetik, haurrak aitonaengandik jasotako bizipenak irakurleari kontatuz; eta azkenik, memoriaren zuhaitzaren sinboloaren bidez, non haurrak ulertzen duen transmisio horri jarraipena ematea dagokiola:

Eta ni honelaxe, haritz txikiari besarkaturik nagoela, memoria piztu zait. Memoria piztu eta argitu. [...] aitona Robinsonek badaki, ondo jakin ere, gure memoriaren zuhaitza ondo zainduta dagoela, inongo hesirik gabe, sustraietatik adarretaraino, eta elkarrekin ondo zainduko dugula, altxor baten gisan (54., 56. or.).

Bide horretan, antzekoa proposatzen da *Amonarenean kea* albumean, non bilobak, amonaren zenbait gomendio batuta, sekretuak gordetzearen premiaz eta, era berean, isiltasun historikoa apurtzearen beharraz diharduen. Iraganeko egoera bortitzaren eta orainaldiko bizimoduaren arteko kontrasteak azpimarratzen dira amonaren transmisioa jaso duen bilobaren narrazio liriko honetan:

Oroitzen dut,
amonak errana,
karriketan jolasteko gogorik ez zegoela gerran.
Oroitzen dut,
amonak errana,
gerran ez zegoela jaterik galletak edo pastelak.
Oroitzen dut,
amonak errana,
gerran hil zutela aitona,
goiztiria hasita zenean.
Oroitzen dut, amonak errana,
zeharo gautu zirela egunak 1936an.

Azken multzoko obra horiek kokapen lokala badute ere, interpretazio unibertsa har dezakete, garrantzia ez baita gertaera historikoetan jartzen, ezpada edozein gatazkatan senti daitezkeen afektu, bizipen eta galeretan. Ildo horretan, *Gerrak ez du izenik* albumaren lehen hitzek kokatzen dute istorioa: «1937ko martxoan da Durangon. Mirentxu aspaldian isilik dabil». Haatik, ez da gatazkaren piztueraren arrazoirik, ez eta borrokako bandoen inolako azalpenik ematen.

4. GERRAK EZ DU IZENIK

Euskal albumari erreparatuz, Etxanizek (2023) dioen bezala, bi inflexio-une izan dira: batetik, 90eko hamarkadaren amaieran Kalandraka argitaletxeak albumak euskarara ekarri zituenekoa eta bestetik, 2004an Etxepare Saria sortu zenekoa (Nafarroako Udalutako euskara zerbitzuek sustatutakoa). Horiek abiatu zuten euskal albumaren ibilbidea, eta euskarara itzultako album klasikoak ez ezik, jatorrian euskaraz sortzeko aukerak ugarituz joan dira. XXI. mendean argitaletxe ezberdinek –bai bertako euskal etxeek baita kanpokoek ere– apustu horri eutsi diote, eta gaur egun euskaraz inoizko album kopururik handiena dugula esan dezakegu. Aurretik esan bezala, *Gerrak ez du izenik* (2013) lana Etxepare Saria lortu zuenatarikoa da.

Gerrari buruzko album ilustratu gehienetan ez da krudeltasuna esplizitu egiten, baina ilustrazioetako sinbolo edo hitzen metaforekin aditzera ematen da zein den ga(r)ia. Hau da, bereziki gogorak eta aztoragarriak diren gaiak modu eder eta gozoan komunikatzeko hautua egiten da album ilustratuetan, sinpleak diruditen egoeren esanahi ezkutua agerraraziz (Lapeña-Gallego & Hidalgo-Rodríguez, 2017). Gerraren gaia lantzen duten album eredu ugari ditugu gaur egun. Badira gerraren kontzeptuari berari buruzko hausnarketa egiten duten lanak, hots, gerraren absurdoaz hausnartzen dutenak: gaztelaniaz *El enemigo* (Cali & Bloch, 2007/2019), *Los niños no quieren la guerra* (Battut, 2001) edo *El camino de Marwan* (de Arias & Borrás, 2020); eta euskaraz, *Gerra* (Letria & Letria, 2022). Erregimen totalitarioen analisisa burutzen dutenak ere badira, diktaduretako dinamikak eta diskurtso zentzugabeak ageriko egiten dituztenak: *Así es la Dictadura* (Equipo Plantel, 1977/2016) gaztelaniaz; *Idazlana* (Skàrmeta & Ruano, 1998/2008) eta *Hemendik ez pasa!* (Minhós & Carbalho, 2017/2022), euskaraz. Edozein kasutan, gairik kanonikoenak II. Mundu Gerrakoak eta Holokaustoarenak dira: gaztelaniaz *Rosa Blanca* (Gallaz & Innocenti, 1987/2005), *¡Huye!* (Vadas & Olejníková, 2017), *El niño estrella* (Hausfater-Douïeb & Latik, 2003), *Humo* (Fortes & Concejo, 2023), *Bruno, el niño que aprendió a volar* (Terranova & Amit, 2013), *La historia de Erika* (Vander Zeek & Innocenti, 2003/2005) eta *Otto. Autobiografía de un osito de peluche* (Ungerer, 1999/2012), besteak beste. Azkenik, 36ko Gerrari buruzko *Mexique. El nombre del barco* (Ferrada & Innocenti, 2017) edo *Guernica* (Bernard & Charpentier, 2007/2008) albumak daude, gaztelaniaz; euskaraz, aldiz, ikergai dugun *Gerrak ez du izenik* (Bilbao & Mutuberria, 2013).

Albumaren azterketarako genero artistiko-literarioaren kodeari loturiko ezaugarriok hartuko ditugu kontuan, interpretazioan eragingo duten aldagaiak baitira: albumaren forma eta tamaina (Colomer, 2010; Fernández de Gamboa, 2023), azala (Garrido,

2019), kontrazala (Mattos et al., 2016) eta babes-orriak (Consejo, 2011), unitate minimoa eta orrialdearen tolesdura (Lapeña-Gallego, 2013), tipografia eta kolorea (Serafini & Klausen, 2012 apud Fernandez de Gamboa, 2023), testuen eta irudien arteko harremana (Colomer et al., 2018), denboraren iragaitea irudikatzen moduak (Nikolajeva & Scott, 2001) eta ilustrazio teknika orokorrak (Larragueta, 2019). Horrez gain, ilustrazioetako elementu sinbolikoak eta metaforikoak aipatuko ditugu.



Bestalde, gerrari buruzko iruditeriari dagokionez, euskal HGLn aztertu ditugun elementu narratiboak ere izango ditugu aztergai: narratzailearen eta protagonistaren adina eta generoa, kronotopoa, kontatzen diren gertaera nagusiak eta horiekiko ikuspegi ideologikoak.

Gerrak ez du izenik Leire Bilbaok eta Maite Mutuberriak 2013. urtean Pamiela argitaletxearekin argitaratutako albuma da. Albumaren istorioa Mirentxu izeneko haur baten esperientzian oinarritzen da. Narratzaile orojakileak kontatzen duenaren arabera, amona hilik du, baina haren ahotsa du buruan, izendatzen ez dena existitzen ez dela dioena. Aita ere ez da istorioan ageri frontera joan baita. Mirentxu, beraz, amarekin dago, eta gerra airean sumatzen bada ere, hasieran bederen, ez du haurren egunerokoa eteten. 1937ko martxoaren 31n, ordea, gerra Durangora heltzen da, eta bonbardaketak bueltatzen dio ahotsa Mirentxuri, gerrak gorputza zeharkatzen diotenean. Herria txikituta, Mirentxuk amari deiadar egin eta elkarrekin abiatzen dira, «hegazkinei eta beldurrari iskin eginez».

Liburuaren formatua ertaina eta karratua da, zabaltzean paisaiaren forma horizontala hartzen duena. Azalak eta kontrazalak osatzen duten paisaian istorioan zehar aurkitzen diren elementu sinbolikoak ikusten dira: koloreak –zuri-beltza eta gorria–, collage moduan egunkariko hizkiez osaturiko GERRA hitzek hartzen duten misil forma –umearengana zuzendurikoa–, ortofotoaren eta ilustrazioen arteko jolasa –base-rria trazo gorritz (fikzioa irudikatuz) eta herria argazki bidez (errealitatea irudikatuz)–, «Ez du izenik» hitzak ezabatzen dituen hari gorria, eta ezabatze horrekin adierazi nahi dena. Azken batean, istorioaren aurrerapen funtzioa betetzen duten elementuak dira, irakurlearengan espektatiba batzuk sortzen dituztenak.

Babes-orriak, hasieran zein amaieran, beltzak dira, eta gerraren iluntasuna, bonbardaketaren osteko giroa, eta gerrari buruz dauden diskurtso argiak izateko zailtasuna irudikatzen dute; gai gatazkatsu baten metafora dira.

Bi barruko azal ditu hasieran. Lehenengoan izenburua bakarrik dago, eta atzealdean, hodeien (edo hegazkinen arrastoaren) azpian lore eta etxe gorriak daude marraztuta, naif artearen bidez. Bigarrenean, aldiz, informazioa osatu egiten da: iraganera garamatzen argazki historiko bat dago izenburuaren azpian, lore gorriekin apainduta. Errealitatearen eta fikzioaren arteko mugekin egiten den jolasa hasieratik dago presente. Amaierako barneko kontrazalean, hasieran ikusitako hodei edo hegazkin arrastoak eta hari gorri batek gidatzen dituen paperezko hegazkinak daude. Horrela, irakurleak aurkituko duena barneko azaleko giro baketsu eta harmoniatsuaren eta kontrazalean alde egiten ari diren hegazkinen artean kokatzen da (ik. 2. irudia).



2. irudia. Bilbao, L. & Mutuberría, M. (2013). *Gerrak ez du izenik*. Pamiela. Barneko azala eta kontrazala.


Ondoren dator kontakizunaren lehen eszena, istorioaren kronotopoa zehazten duena: «1937ko martxoan da Durangon. Mirentxu aspaldian isilik dabil». Ilustrazioetan zuhaitz adarrean eserita dagoen neskatxa bat aurkezten zaigu. Abiapuntu simple horretan datu asko ezkututzen dira: zein da pertsonaiaren mututasunaren arrazoia? Zergatik dago Mirentxu zuhaitzean igota, herrira begira? Hari bat luzatzen da zuhaitzaren adarretik orrialde-amaierara, eta irakurleari jarraitzeko gonbita luzatzen zaio. Album honetan hitzen eta ilustrazioen arteko harremana erredundantea da, baina ñabardura ugari ezkututzen dira, bai hitzetan, bai ilustrazioetan. Xehetasun horiek gertaeretan baino gehiago, pertsonaien barne-mundua eta afektua irudikatzeko moduan daude. Hizkera metaforikoa da askotan, eta bi kodeen arteko erlazioa osagarria ez bada ere, irudietako zehaztasunek osatzen dute irakurketa. Horren adibide da, esaterako, kanpoko vs barneko munduen arteko talka irudikatzeko Mirentxu basoan zabuan dabilela dirudien eszena, non arretaz begiratuz gero, kilkeraren kaiolan harrapatua dagoela ikusten den.

Denboraren iragaitea bi orrialdeko unitateek osaturiko pasarteen bidez ez ezik, bineta bidez ere irudikatzen da: haien arteko lotura hariak egiten du, pasarte horiek batuz, eta bineten azpiko kartutxoetan ageri diren hitzek egunak pasatzen direla diote. Guz-tira hilabete igaro da, baina bada ñabardura gehiago: kartutxoak esparatrapuen bidez eginak dira, eta hitzak bertan kokatzeak iradokitzen du zauriak ixteko sendabidea dela kontaketa (ik. hirugarren irudia).



3. irudia. Bilbao, L. & Mutuberría, M. (2013). *Gerrak ez du izenik*. Pamiela.

Idea hori indartzen du amonaren esanak («izenak izana dakar»), zehazki bonbardaketaren ostean Mirentxuk lehen aldiz amari deitzen dionean:



4. irudia. Bilbao, L. & Mutuberría, M. (2013). *Gerrak ez du izenik*. Pamiela.

Laugarren irudiko ilustrazioan ikusten den bezala, lehen aldiz marrazturiko Mirentxuren ahoaren barruan elementu asko dago korapilatuta eta kiskalita edo erreta, mataza batean bezala bilduta, eta hori guztia askatu behar du, bonbardaketa batek azpian harrapatu duenean. Gerra hitza ez da inoiz ere aipatzen kontakizunean, baina iradokitzen da bonbardaketaren ostean Mirentxuk amari deiadar egiten dionean hasien dela aipatu gabekoei hitzak jartzen.

Pertsonaiaren irudikapenean bi datu nabarmendu daitezke: batetik, haren mututatsuna, zeina ahorik gabeko aurpegian islatzen den (Barandiaran, 2023, 191. or.); bestetik, neskatxaren ile gorria, hariaren kolore bera duena. Lehenengo ezaugarriak askotariko interpretazioak ahalbidetzen ditu:

- Gerraren hasierak pertsonaiari ekarritako trauma irudika dezake isiltasunak, eta horri loturik, hitz egiteko beldurra adierazi.
- Halaber, pentsa daiteke amonaren esapideari loturik, izendatzen ez dena ez bada, isilik egonda gerra existitzen ez delako ideiarri eutsi nahi diola Mirentxuk.
- Haur bezala, eta are neska bezala, gerrari buruz hitz egiteko ahotsik ez izatea edota haien ahotsa gutxitan kontuan hartu izana aldarrikatzen duela ere pentsa daiteke. Izan ere, haurren eta helduen arteko gerrari buruzko ikuspegia ezberdina da, maiz umeena gutxietsi egin izan delarik (euskal HGLn ikusten da talka hori). Ideia hau berresten du albumeko ondorengo pasarteak:



5. irudia. Bilbao, L. & Mutuberria, M. (2013). *Gerrak ez du izenik*. Pamiela.

Eszena horretan ikusten den bezala, fokua haurraren jartzen da, berari begira dago narratzailea, eta gainerako pertsonaien gorputz erdiak ez dira ikusten. Barandiaranek dioenez, «Kaleko jendea, “handiagoa” da Mirentxu baino,

eta haien hankak eta oinak ikusten ditugu, despersonalizatuta daude» (2023, 192. or.). Helduen munduaren eta ama-alabaren arteko bereizketa ere agerikoa da, orobat, argazki historikoen eta ilustrazioen bidez: helduak argazkietatik ateratakoak dira, Mirentxu eta ama, aldiz, fikziorako sortutako marrazki bidez irudikatatuak dira. Bestalde, amari alabaren mututasunaz galdetzeak bera ere isiltzera darama, eta horrek hainbat irakurketa zabaltzen ditu: etxe horretan esan ezin diren egiak ezkututzen dira, eta bizirauteko hobe beharrez isiltasuna nagusitzen da. Era berean, amak ongi ulertzen du alaba, berarekin bakarrik egonda, trauma berbera bizi baitute biek; eta azkenik, heldu horiek jakin ez arren, Barandiaranek dioen bezala (2023, 190. or.), amonak zenbait gauza ez izendatzeko gomendatu dio, gerta ez daitezten.

Une horretatik aurrera agertzen da irudimena errealtatetik ihes egiteko behar gisa. Mirentxuk badaki zer gertatzen ari den, margo gorriarekin marrazten du gertatuko dena, geografikoki ibilbide bat daukan mapa sortuaz¹⁰. Ondoren, kanpoaren (arriskua) eta barnearen (babesa) arteko kontrastea irudikatzen duen leiho handi batean ikusten da Mirentxu marrazten: etxe urdin batzuk irudikatu ditu, eta maleta eskuan daukan pertsona bat. Bere desiren eta errealtatearen arteko talka ikusten da irudi horietan, non aita izan daitekeen etxera bueltan maleta batekin marraztu duena eta paperezko hegazkinak gogo hori zapuztu dezaketelako kontzientzia erakusten duten (ik. seigarren irudia).



6. irudia. Bilbao, L. & Mutuberria, M. (2013). *Gerrak ez du izenik*. Pamiela.

10 Barandiaranen interpretazioa bestelakoa da. Haren iritzi, haurrak ez die helduei begiratzen haren ume-munduan sartuta dagoelako: «[...] lurrean marraztutako mapa moduko bati begiratzen dio, agian inurrien ibilerak markatutako mapa irudimenezko bati» (2023, 192. or.). Gure ustez, justu kontrako adierazi nahi da, izan ere, haurra den arren, helduen begirada baino sakonagoa da berea, narratzaileak berak dioena kontuan hartuta: «Baina Mirentxuk gertatzen denetik haratago ikusten du, 1937ko martxoan».

Ondorengo eszenetan Mirentxuk gerrari buruz dakiena adierazten zaigu, berriro ere collagearen bidez: erbestera joandako haurren itsasontziko argazkia, Mirentxuren papezko ontziak eta itsasontziko tximinietatik ateratzen den kean irudikatutako egunkarietako hitzak ageri dira eszena berean. Irudimenetik errealitaterako jauzia progresiboki ikusten da: paperezko itsasontzia batel bihurtzen da, Ozeano Atlantikoaz haraindiko itsasontzi izatera heltzeraino. Barkuen tamainak eta materialak ere fikzioaren eta errealitatearen arteko kontrastea indartzen dute: itsasontziaren handitasunak eta metalak edo altzairuak fikzio bidez irudikatzea zailak diren egoera bortitzak iradokitzen dituzte. Errealitateak fikzioa gainditzen du; baina fikzioak errealitate horretara gerturatzeko bideak proposatzen dizkigu. Argazkietatik ateratako itsasontzi handi horretan leporik gabe baina gorputza buruari itsatsitako haurrak trazu sinplez daude marrazturik, hasieran aipatutako naif arteak Mirentxuren marrazkiak imitatzen dituelarik. Estrategia hori gerrari buruzko beste albumetan ere erabiltzen da, adibidez, *Mexique. El nombre del barco* lanean. Baliabide horren bidez gogortasuna samurtzen da eta haurren mundura hurbiltzen da irakurlea. Era berean, haurren errealitate ezberdinak ageri dira: batzuek gerratik ihes egin zuten –baina horregatik ez zuten bizimodu oparagoa izan–, eta beste batzuek, aldiz, Mirentxuk bezala, gerra bizi izan zuten, lekuko bilakatu ziren.

Aipatu dugu azpi-izenburuaren gainean hari gorri bat dagoela azalean, eszena guztietan agertzen den haria da. Sinbolo funtzioa du, eta hainbat irakurketa-proposamen ahalbidetzen ditu:

- a) Amona brodatzen ikusten da hasierako eszena batean, eta neurri batean badirudi hark Mirentxuri ematen dizkion gomendioengatik, bera dela historia harilkatzen laguntzen ari zaiona, biloba izanik iraganetik orainera –eta agian etorkizunera– lekuko gisa transmisio horren ardura hartuko duena. Testigu izatearen ideia, gainera, bonbardaketa aurretiko pasartean ikusten da argi: Mirentxu gora begira dago –plano kontrapikatuaren bidez– eta aurpegia irudikatzeko moduak aterki itxura hartzen du. Gainerako pertsonaiak babespera doazen bitartean, Mirentxu bertan geratzen da, erresistentzia irudikatuz edota lekuko izatearen beharra azpimarratuz.
- b) Gertatzen ari zaienari buruzko diskurtso koherente bat sortzeko behar horretan nabarmentzen da hasieratik amaiera artekoa kontatu beharra, eta horregatik azaltzen da azaletik hasita pasarte guztietan haria, amaiera arte. Are gehiago, hari gorri horrek zentzu handiagoa hartzen du errepublikazaleen ahots isilarazia iradokitzen duela kontuan hartuz gero.
- c) Mirentxuren mututasunarekin lotuz gero, historia kontatzeko premia hori haritik tiraka ibili behar izatearen ideiarene bidez irudikatua izan daiteke, ezkutuan egon dena azaleratzeko beharra nabarmentzen duena.
- d) Hari gorriak mito japoniar baten arabera, elkar topatuko diren bi pertsonen patua adierazten du, inoiz apurtuko ez den hariaren bidez betirako loturik egongo direnena. Kasu honetan, amona, ama eta alaba hari gorri horren bidez lotuta agertzeak eta bereziki hariaren gainean dauden inurri ilarak eta kilkerak amonari erreferentzia giteak mitoaren oihartzunak ekartzen ditu gogora.

Durangoko bonbardaketari buruzko istorio honetan ez da gizonik irudikatzen, amona-ama-alaba bakarrik ageri dira. Are gehiago, Mirentxurekin jolastera etortzen den Bittor ez da ilustrazioetan ageri, eta amaren ohartarazpenagatik dakigu laguna bisitan joan zaiola. Hautu horren atzean osagarriak diren bi asmo egon daitezke: gerra neskek eta emakumeek nola bizi izan zuten azaldu nahi izatea eta gizona asko frontera joanak ala erailak izan zirenez, herrian geratutako bizimodua irudikatzea. Emakumeen arteko lotura hori gerraren bizipenek estutzen dute, eta kontaketa bilakatzen da –hariaren bidez– ahalduntzeko modu bat, gerrari buruzko imajinarioan lekua hartzeko bide bat.

5. ONDORIOAK

Ikerlaneko lehen helburuari dagokionez, aipagarria da 2010. urtetik aurrerako gerrari buruzko euskal HGL ugaritu dela. Horrek gaiarekiko interes bat erakusten du, eta Etxanizek eta Lópezek (2008) duela hamarkada bat baino gehiago esandakoa, beraz, gaurko egunez ez da betetzen, orduz geroztik argia ikusi duten lanen arabera, gaia kanonikotzat ere jo baitaiteke.

Bigarren asmoa kontuan hartuta, esan dezakegu 36ko Gerrari buruzko euskal HGLk haurraren begiradatik lortzen duela gatazka horren bizipenak irakurleari transmititzea, eta protagonistekin enpatizatze baliabideak eskaintzen dituela: batzuetan ausart ageri dira, gerrarekiko jakinminez; beste batzuetan beldurti, ezjakintasunak berarekin dakarren zalantzekin. Genero aldetik ere, neska eta mutil dira protagonista, kopuru antzekoetan. Guztiek argi uzten dutena da gerrak haien bizitza apurtzen duela, eta haien egunerokotasun arrunta guztiz zeharkatzen duela: lehen hildakoak ikusten dituzte, familiako kideak erailten dizkiete, edota aita gerrara joanda, hura gabe geratzen dira; baina gogortasun horretan erlazio berriak sortzen dituzte, maitasunaren lehen esperientziak bizitzen, nerabezaro betean; eta egoeraren bortizkeria horretatik ihes egiteko modua irudimenean eta literaturan aurkitzen dute. Ez dute gerraren arrazoia ulertzen, baina badakizkete haren ondorioak. Helduen ikuspegia ere agertzen da, eta haur edo gazte horiekiko distantzia nabari da: badirudi gerra ulertzeko altxamendu militarren jatorria eta errepublikazaleen arrazoi politikoak ezagutu behar dituztela; baina gerra ez da hori bakarrik.

Istorioen amaieran pertsonaiak ez dira zoriontsu, askotan erbestea eta etorkizun iluna baitute zain. Areago, gerrari buruzko ezagutza memoria transmisio bidez jasotako pertsonaiak jabetzen dira garai demokratikoagoan jaiotzeak ekarritako pribilegioez: «Zer mutil mota zen, [gerraosteko] halako gertakarien berri izanik, azterketa batengatik larritzen zena!» (1948ko *uda*, 73. or.).

Orokorrean gerrari buruzko euskal HGLk ideologikoki galtzaileen begiradatik kontatzen du gerra, baina ahots ezberdinak ekartzen dira diskurtsora, kalean, etxean edota komunikabideetan ikusi eta entzundakoak gehienetan. Aitzitik, helburua ez da gerrako kronika bat egitea, baizik eta gerraren bizipenak, minak eta arrakalak agerian uztea.

Azkenik, *Gerrak ez du izenik* albumaren interpretazioan azaldu dugunez, hitz eta orrialde gutxitan gerra horrek haurrengan izan zuen eragina transmititzen da: Mirentxuren isiltasunak gerrak ekarritako trauma sinbolizatzen du, ahorik irudikatzen ez den aurpegiaren bidez ere ikusgarri egiten dena; eta amonaren *izena duena izana* da esapi-deak isiltasun horri hitzak jarri beharra nabarmentzen du; amona-ama-alaba genealogiak emakumeek gerra nola bizi izan zuten erakustez gain, gerrako iruditerian emakumeen esperientziak biltzeko aldarria ere egiten du. Hiru ideia horiek oinarri badira ere, sinboloak, argazki historikoak eta ilustrazio teknikak irakurketa sakonagoak iradokitzen dituzte, eta egunkariko letrekin egindako jolasak, hari gorriak, eta Durangoko bombardaketako argazki historikoekin egindako collageak gerraren hiru ardatz elkarlotzen dituzte: ustezko objektibotasunaren izenean komunikabideek gerrari buruzko sortutako diskurtso subjektiboa –egunkarietako letrak–, norberak harilkatu beharreko esperientziaren kontaketa subjektiboa –hari gorria– eta garai bateko segundo baten kristalizazio objektiboa –argazki historikoak–. Horien arteko gurutzatzeak gerrari buruzko begirada ezberdinak daudela erakusten du. Gainera, ilustrazioetan behin eta berriz adierazten den bezala, Mirentxurentzat egoera gatazkatsu horretatik ateratzeko modu bakarra sormenarekin jolas egitea da.

6. ERREFERENTZIAK

- 52/2007 Legea, abenduaren 26koa, gerra zibilean eta diktaduran jazarpenera edo indarkeria pairatu zutenen eskubideak onartzen eta zabaltzen dituen, eta haien aldeko neurriak ezartzen dituen (2007ko abenduaren 27ko EAO; 310. zk.).
- Aliaga, I. & Vázquez Sánchez, A. (2011). Libros de literatura infantil y juvenil sobre la guerra civil española. *Primeras Noticias. Revista de Literatura*, 262-263, 45-53.
- Alonso, I. (2010). *Erdigune literarioak irakaskuntzan*. UPV/EHU.
- Añorga, P. & Mitxelena, J. (1984). *Pottoko*. Elkar.
- Añorga, P. & Mitxelena, J. (2012). *Memoriaren zuhaitza*. Elkar.
- Atxaga, B. (1991). *Behi euskaldun baten memoriak*. Pamiela.
- Barandiaran, A. (2023). Leire Bilbao eta Maite Mutuberriaren *Gerrak ez du izenik* (Pamiela, 2013). In X. Etxaniz & K. Fernandez (arg.), *Egungo euskal albuma* (187.-198. or.). UPV/EHU.
- Barruso, P. (2004). La memoria incompleta: la recuperación de la memoria histórica en el País Vasco. *Cuadernos Republicanos*, 56, 29-59.
- Battut, E. (2001). *Los niños no quieren la guerra*. Editorial Juventud.
- Bernard, H. & Charpentier, O. (2008). *Guernica* (itzul. P. A. Almeida). Kalandraka. (Jatorrizko obra 2007an argitaratua)
- Bilbao, L. & Mutuberria, M. (2013). *Gerrak ez du izenik*. Pamiela.
- Blockeel, F. (2010). La mujer y la joven en la narrativa juvenil sobre la guerra civil española. In C. Vázquez (arg.), *Diálogos intertextuales 3: “En busca de la voz femenina”: temas de género en la literatura infantil y juvenil de la Península Ibérica y Latinoamericana* (41.-66. or.). Peter Lang.
- Cadenas, I. (2014, azaroaren 19a). La memoria, ese invento del poder. *Eldiario.es*. https://www.eldiario.es/zonacritica/memoria-invento-poder_6_325527452.html

- Cali, D. & Bloch, S. (2019). *El enemigo* (itzul. P. de San Pedro). Takatuka. (Jatorrizko obra 2007an argitaratua)
- Colomer, T. (2010). *Introducción a la literatura infantil y juvenil*. Síntesis.
- Colomer, T., Manresa, M., Ramada, L. & Reyes, L. (2018). *Narrativas literarias en educación infantil y primaria*. Síntesis.
- Consejo, E. (2011). Peritextos del siglo XXI. Las guardas en el discurso literario infantil. *Ocnos: Revista de Estudios sobre Lectura*, 7, 111-122. https://doi.org/10.18239/ocnos_2011.07.09
- de Arias, P. & Borrás, L. (2020). *El camino de Marwan*. Editorial Amanuta.
- de Pablo, S. (2012). Guerra Civil. In S. de Pablo, J. de la Granja, L. Mees & J. Casquete (arg.), *Diccionario ilustrado de símbolos del nacionalismo vasco* (444.-467. or.). Tecnos.
- Equipo Plantel. (2016). *Así es la dictadura*. Gaya Ciencia. (Jatorrizko obra 1977an argitaratua)
- Erlil, A. (2011). *Memory in culture*. Palgrave MacMillan.
- Errazkin, M. (2009). 1936ko Gerrako garaituen eta frankismo-garaiko biktimen memoria kolektiboa. In M. Errazkin & J. Agirre (arg.), *1936ko Gerra Euskal Herrian: historia eta memoria* (117.-154. or.). UEU.
- Etxaniz, X. (1997). *Euskal haur eta gazte literaturaren historia*. Pamiela.
- Etxaniz, X. (2011). Sarrera. In X. Etxaniz & M. López (zuz.), *Egungo euskal eleberrigintzaren historia* (13.-96 or.). UPV/EHU.
- Etxaniz, X. (2023). Albumak euskal literaturan. In X. Etxaniz & K. Fernandez (arg.), *Egungo euskal albuma* (71.-136. or.). UPV/EHU.
- Etxaniz, X. & López, M. (2008). 1936ko Gerra euskal haur eta gazte literaturan / Unha ferida sen cicatrizar. A guerra civil na LIX vasca. In B.A. Roig Rechou, P. Lucas Dominguez & I. Soto López (koord.), *A guerra civil española na narrativa infantil e xuvenil* (137.-156. or.). Xerais.
- Fernández de Gamboa, K. (2023). Albuma zertan den. In X. Etxaniz & K. Fernández (arg.), *Egungo euskal albuma* (13.-70. or.). UPV/EHU.
- Ferrada, J.M. (2017). *Mexique. El nombre del barco*. Libros del zorro rojo.
- Ferreira-Boo, M.C. (2016). La guerra en el álbum narrativo en lengua gallega. In R. Oittinen & B.A. Roig Rechou (koord.), *A grey background in children's literature: death, shipwreck, war, and disasters* (151.-171. or.). Iudicum.
- Ferreira-Boo, M.C. (2019). Educar en valores a través do álbum: a temática de guerra. *Revista Galega de Educación*, 73, 82-88.
- Fortes, A. & Concejo, J. (2023). *Humo*. OQO.
- Gallaz, C. & Innocenti, R. (2005). *Rosa Blanca*. (itzul. B. Olid). Lóguez Ediciones (Jatorrizko obra 1987an argitaratua)
- Garzes, I. & Urbeltz, L. (2019). *Hari single bat*. Erein.
- Garrido, R. (2019). *Texto e imagen. La experiencia lectora en el álbum ilustrado*. Entre letras.
- Gräfin Deym, I. (2011). La memoria de la guerra civil española en la literatura infantil y juvenil. *Primeras Noticias. Revista de Literatura*, 262-263, 27-33.
- Hausfater-Douïeb, R. & Latik, O. (2003). *El niño estrella* (itzul. Edelvives). Editorial Luis Vives. (Jatorrizko obra 2001ean argitaratua)
- Ibañez, A. & Martirena, D. (2020). *Amonarenean kea*. Liburu iletsuak.

- Igerabide, J.K. (2020). *Arrastoa*. Alai.
- Iturriaga, U. & San Vicente, A. (2011). *Udaberririk ankerrena*. Elkar.
- Izagirre, K. (1991). *Metxa esaten zioten agirretar baten ibili herrenak*. Elkar.
- Joly, M. (2008). Las violencias sexuadas de la guerra civil española: paradigma para una lectura cultural del conflicto. *Historia Social*, 61, 89-107.
- Ladron, A. (2016). *Gezurren basoa*. Elkar.
- Lapeña-Gallego, G. (2013). Intencionalidad estética y narrativa de la doble página en el álbum ilustrado. *AILIJ (Anuario de Investigación en Literatura Infantil y Juvenil)*, 11, 81-92.
- Lapeña-Gallego, G. & Hidalgo-Rodríguez, M.C. (2017). El tratamiento de la memoria histórica en el álbum ilustrado Rosa Blanca. *Ocnos*, 16(1), 62-78. https://doi.org/10.18239/ocnos_2017.16.1.1175
- Larragueta, M. (2019). El libro-álbum premiado: análisis crítico de las ilustraciones en el panorama español 2000-2017. *Revista Prisma Social*, 25, 300-315.
- Lauge, H. (2013). The autoreflexion on the processes of cultural remembrance in the contemporary Spanish memory novel. In N. R. White (arg.), *War: global assessment, public attitudes and psychosocial effects* (87-122. or.). Nova Science Publishers.
- Letria, J.J. & Letria, A. (2022). *Gerra* (itzul. U. Iñurrieta). A Fin de Cuentos Editorial. (Jatorrizko obra 2017an argitaratua)
- Liikanen, E. (2012). Pasados imaginados: Políticas de la forma literaria en la novela española sobre la guerra civil y el franquismo. In H. Lauge & J.C. Cruz (arg.), *La memoria novelada: Hibridación de géneros y metaficción en la novela española sobre la guerra civil y el franquismo (2000-2010)* (43.-53. or.). Peter Lang.
- López, M. & Etxaniz, X. (2008). Urtebete itsasargian Miren Agur Meaberen gazte eleberraren azterketa. In B.A. Roig Rechou, P. Lucas Dominguez & I. Soto López (koord.), *A guerra civil española na narrativa infantil e xuvenil* (313.-318. or.). Xerais.
- Mattos, M.S., Ferreira, P. & Vianna, S. (2016). Capas e contracapas de livros ilustrados: espaços privilegiados de estratégias discursivas. *Cadernos de Letras da UFF Dossiê: A Crise da Leitura e a Formação do Leitor*, 52, 349-372. <https://doi.org/10.22409/cadletrasuff.2016n52a119>
- Martín, N. (2008). Guerra civil y posguerra en la narrativa escrita en castellano. In B.A. Roig Rechou, P. Lucas Dominguez & I. Soto López (koord.), *A guerra civil española na narrativa infantil e xuvenil* (31.-56. or.). Xerais.
- Meabe, M.A. (2003). *Urtebete itsasargian*. Elkar.
- Minhós, I. & Carbalho, B.P. (2022). *Hemendik ez pasa!* (itzul. G. Arrula). Txalaparta. (Jatorrizko obra 2017an argitaratua)
- Moreno-Nuño, C. (2006). *Las huellas de la guerra civil: mito y trauma en la narrativa de la España democrática*. Libertarias.
- Negrete-Portillo, R. (2024). Recuerdos LIJ-ados: memoria de la guerra civil española en la literatura infantil y juvenil del siglo XXI. *Tejuelo: Didáctica de la Lengua y la Literatura. Educación*, 39, 197-219. <https://doi.org/10.17398/1988-8430>
- Neira Rodríguez, M. (2011). Mujer y narrativa infantil y juvenil sobre la guerra civil española. In A. Margarida Ramos & I. Mociño González (arg.), *Crítica*

- e investigación en literatura infantil y juvenil* (445.-454. or.). ANILIJ/ CCIEC-Universidad de Micho.
- Nikolajeva, M. & Scott, C. (2001). *How picturebooks work*. Garland Pub.
- Nora, P. (1997). Entre mémoire et histoire : La problématique des lieux. In P. Nora (zuz.), *Les lieux de mémoire I* (23.-43 or.). Gallimard. (Jatorrizko obra 1984an argitaratua)
- Olaziregi, M.J. (2008a). La guerra civil y sus representaciones. In B.A. Roig Rechou, P. Lucas Dominguez & I. Soto López (koord.), *A guerra civil española na narrativa infantil e xuvenil* (13.-26. or.). Xerais.
- Olaziregi, M.J. (2008b). Una vaca amiga de los maquis. A propósito de *Memorias de una vaca*, de Bernardo Atxaga. In B.A. Roig Rechou, P. Lucas Dominguez & I. Soto López (koord.), *A guerra civil española na narrativa infantil e xuvenil* (207.-216. or.). Xerais.
- Regueiro Salgado, B. & García Carcedo, P. (2020). La guerra civil española en la literatura juvenil del siglo XXI: pacifismo y pluralidad. *Didáctica. Lengua y Literatura*, 32, 195-295. <https://doi.org/10.5209/dida.71797>
- Rodriguez, E. (2004). *Eta handik gutxira gaur*. Susa.
- Roig, B.A., Ruzicka, V. & Ramos, A.M. (2012). *La guerra civil española en la narrativa infantil y juvenil, 1936-2008*. Tropelias & Companhia.
- Ruiz Torres, P. (2007). Los discursos de la memoria histórica en España. *Hispania Nova: Revista de Historia Contemporánea*, 7, 1-30.
- Sarrionandia, J. (2003). *Kolosala izango da*. Txalaparta.
- Serrano-Mariezkurrena, A. (2019). *36ko Gerra euskal nobelagintzan: Memoria ikerketak narratologia kulturalaren ikuspegitik* (Doktore-tesia, UPV/EHU). ADDI. <http://hdl.handle.net/10810/38590>
- Serrano-Mariezkurrena, A. (2024). *Begirada literarioak iraganari. 36ko Gerraren irudikapenak euskal eleberrigintzan*. UPV/EHU.
- Skårmeta, A. & Ruano, A. (2008). *Idazlana* (itzul. L. Etxezaharreta). Ikas. (Jatorrizko obra 1998an argitaratua)
- Terranova, N. & Amit, O. (2013). *Bruno, el niño que aprendió a volar* (itzul. C. Mayor). A buen paso.
- Ugalde, M. (1990). *Itzulera baten historia*. Elkar.
- Ungerer, T. (2012). *Otto. Autobiografía de un osito de peluche* (itzul. S. Andrés). Ediciones B. (Jatorrizko obra 1999an argitaratua)
- Urzelai-Vicente, A. (2024). Euskal Herriko gatazka armatuen errepresentazioa euskal haur eta gazte literatura garaikidean [Argitaratu gabeko doktore-tesia] UPV/EHU.
- Vadas, M. & Olejníková, D. (2017). *¡Huye!* (itzul. A. Hermida). Barbara Fiore Editora.
- Vander Zeek, R. & Innocenti, R. (2005). *La historia de Erika* (itzul. P. Martínez & X.M. González). Kalandraka. (Jatorrizko obra 2003an argitaratua)
- Zubizarreta, P. & Olariaga, A. (1994). *1948ko uda*. Pamiela.
- Zubizarreta, P. & Mosquera, Y. (2016). *Beroki gorria*. Ibaizabal.